

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTARONGO UDALA

#### 2016ko JEZaren ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Jendeari jakinarazten zaio 2016ko urriaren 13tik aurrera kobratzeko moduan jarriko direla, borondatezko epean, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2016ko ordainagiriak.

#### 1. ORDAINTZEKO EPEA

A) Borondatezko epea: 2016ko urriaren 13tik abenduaren 16ra.

B) Betearazte aldia, ehuneko hogeira arteko errekaruarekin: 2016ko abenduaren 17tik aurrera betearazte aldiko errekaruak, premiamendu murriztukoak eta arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

#### 2. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA

A) Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute inolako izapidetik egin beharko, helbideraturiko banku kontua berbera baldin bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei gogorarazten zaie banku helbideratzeen altak edo aldaketak udaletxean izapidetu behar direla. Ordainagiriak 2016ko abenduaren 1ean kobratuko dira.

B) Helbideratu gabeko ordainagiriak: zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dituzte, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2016ko irailaren 27a

*Alkatea*

*JAVIER URIARTE JAIRO*